

NARRATIBA

Logikak eta krisiak

HILEN LOGIKA EZKUTUA

Jabier Muguruza.
Erein, 2014.
101 orri.

Estibalitz EZKERRA

Jabier Muguruzaren "Hilen logika ezkutua" ipuin bilduma izen bereko narrazioarekin abiatzen da, non kontatzen zaigun, modu arras laburrean kontatu ere, hildakoen logika ez dela bizirik daudenen modukoa, hura ulertzeraz helduz gero, bidegabetzat jo ohi diren heriotzak (jende gazte eta osasuntsuena, esaterako) ez litzaizkigukeela hain bidegabeak irudituko.

Lehen begiratuan jarraian datozen hamabost ipuinek hildakoen logika horrek gidatuta dirudite, haietan deskribatzen zaizkigun gertaerak zentzugabetasunez beteak baitaude. Hartu, adibide moduan, "Beti aitzina". Ipuineko pertsonaia nagusia ezaguna da une oro agertzen duen jarrera baikorragatik. Ezerk ez du Juan atsekabertzen, baina, nolakoak diren gauzak, istripu garrantzi gabeko baten ondorioz hil egingo da.

Bizidun honentzat, ordea, ipuinaren zentzugabetasuna ez dago gertaera horri lotuta. Zentzugabea da min jasangaitzenez ere espiritu baikorri eusteko Juanen borondate irmoa. Jua-

nek garrasi egin zezakeen erizain eta medikuek bere gorputza aztertze orduan eragindako minagatik; aitzitik, akaso santutasunerako bidea bermatu bai baina bere hezur-haragizko kondizioan eraginik izango ez duen irribarreari heltzen dio.

Garrasiaren balio katartiko, teraupetiko eta politikoa da hemen proposatzen ari naizena, giza-emozioa ere baden haserrea zentsuratu beharrean hura onartu eta agerian uztea, batez ere bidegabekeriaren bat jazo denean, kapitalismoaren deskribapen gordina eskaintzen duen "Nicolae eta Andrei" ipuinekoa bezalakoa, edo sormen munduaren ezegonkortasunaren gainean gogoeta egiten duten "Jarraitzeko desioa" eta "52 funtzio baietz" narrazioetan azaltzen denaren modukoa.

Haserre modu honek, jakina, zirikusirik ez du maskulinitate jakin baten ezaugarri bihurtu den haserrearekin. Azken hori, maskulinitatea edo, hobeto esanda, haren krisia dezente

azaltzen da "Hilen logika ezkutuan" en. Nabarmenen agertzen zaigu "Arriskua errepidean" narrazioan, non senarrak emaztearen aurrean gogor plantak egiten dituen, nahiz eta emakumeak, senarraren irainei dien beldurragatik, errepidean sortzen duen egoera arriskutsuak zinez beldurtzen duen. Bere urguilu mindua lasaitze aldera, inork ez dezan esan gizon-gizona ez denik, gertaeran zehar pazientzia handia agertu duen motorzaleari "zerri" deitzen dio eta hitz horrekin bere heriotz-unea erabakita geratzen da. Ezen motorzaleak ere badu bere urguilua, eta hura mindu egiten du senarraren urguilu mindutik sortutako irainak.


Juanek bizitzarekiko erakusten duen filosofia, ordea, bestelakoa da. Bere baikortasun mugagabearen bidez adierazi nahi diguna da gizaki moderno gehiegi saiatzen dela bizitzari, norberarenari zein oro har, nolabaiteko zentzua aurkitzen eta halakorik aurkitu

ezean depresioak jota bukatzen duela, "Opor umoretsuak"-eko Joni gertatu bezala. Ziurra den gauza bakarra da goiz ala berandu denok hilko garela, baina heriotza nola eta noiz gertatuko zaigun, haren logika, jakina, ezezaguna zaigu.

Alde horretatik, kezka existentzialak alde batera utzi eta, New Age mugimenduak bultzatu bezala, barre egin, gogotik barre egin ere, ipuinean esaten zaigun bezala triste dagoena bere erabakiz baitago triste. Barre terapia lagungarri baino lotsagarri egiten zaio Joni, emazteak algara zoroan harrapatzen duenean. Jonen arazoa da, "Ospakizun ausarta" ipuineko Iñigo bezala, ez dela inork ulertua sentitzen. "Bordako azken beteranoak" narrazioko Josu bera, «erremontek eman duen azken izar handia» (24), hala aurkitzen du bere burua gaizki ulertu bat dela medio bere zalerik suitsuena eta bakarra, Enrique agurea, galdu duela uste duenean.

Laguntasun handirik ez da "Hilen logika ezkutua" bildumako ipuinetan, ezta komunikazioa ere ("Izogailuan preso" eta "Janari-denda" muturreko adibideak dira).

Aitzitik, errepresio handia dago, sentimenduen ("Podologoaren kontsultan") eta elkar ulermenarena. Ono pentsatuta, bizidunen logika ez da hildakoena baino logikoagoa.



HAUR LITERATURA

Maitasunari

MAITE DUT

Lorena Martínez Oronoz.
Edol, 2014.
19 euro, 16 orrialde.

Asun AGIRIANO

Azken urteetan euskal ilustrazioaren panorama bizi-bizirik dagoela argi ikusten da. Lan ugari ditugu marrazkilari batzuek arriskuaren bidea hartzen dutela frogatzeko, euren sormenari aukera eman nahi diotela begiztatzeko eta, enkarguzko lanak egitetik aparte, ezohiko proposamenak jorratu nahi dituztela antzemateko. Adibidez, iazko ekainean kaleratu zuen Edo! argitaletxeak Lorena Martínez Oronoz ilustratzaileak (Irun, 1983) egin duen lanik bereziena. Egileak, inguruan dituen gertuko irudiak islatuz, hamasei marrazkiren bitartez maite dituen gauzak aurkezten dizkigu: kutxa batean bilduta zuhaitzaren zati bat, elur malutak, hodei bat, olatua edo oinek hondarretan uzten duten arrastoen marrazkiak. Kanpoan ikus daitezkeen irudietatik barruan gordetzen ditugun irudietara: irria, eskua, burua... Amaieran, bide hori azaltzeko irudi guztiak biltzen dituen fitxa berri batean, lau bertsoekin osatutako poema dugu, bertso bakoitzari

lau irudi dagozkiola. Esan bezala, liburu oso pertsonala.

Lehendik ezaguna genuen "Tanta baten istorioa" (Ttartalo, 2011) album ilustratua. Orduan, Juan Kruz Igerabideren hitzek lagunduta, bizitzaren sorreraren kontakizun poetikoa eskaini zigun. Bizi indarraren sinbolotzat har zitekeen tanta hura, eta badute bi lanok, ordukoak eta gaurkoak, antzekotasunik: zerutik lurrera pertsonaren barru-barruraino iritsi arteko bidea aurkezten digutela.

"Maite dut" honetan elkarri lotuta dauden hamasei marrazki daude guztira, irakurleak ikusi ahala izendatuko dituenak: eguzkia, izarrak, lurra... Hitz horien izenak ozen adieraziz gero, soinu propioa sortzeko aukera ematen digu egileak. Ilustrazioek ordena berezia dute, «zerutik norbanakora doan bidaian», dio egileak.


«Emozio biziko une batean bizitzari dion maitasuna marraztea» zuen helburu Martinezek, «norbere buruaren kontzientzia hartzea mundua maitatu ahal izateko». Zoriontasunetik idatzita dagoela antzematen dela esan genezake, baikortasunetik.

"Maite dut" liburuan haur literatura mundua eta haur liburuak esploratzeko ahalegina dago. Hamasei irudien izenak esaterakoan, sonoritatea eta erritmoa irakurleak berak jartzen ditu,

Pandora mitoaren antzera, kutxa zabaldu eta haurrari kuriositatea pizten zaio. Konpartitzeko aukera ematen duenez, haur eta helduen arteko komunikazioa indartzeko ere balio du.

Hamasei lamina hauetan maitasunaren kartografia marrazten da, harridura hasieran, eta gogoeta geroago; eta batez ere, joko edo dibertimendua. Bitartean, errealitateaz, fantasiaz, zoriontasunaz eta bizitzaren zentzuaz solas egin dezakegu. Narrazioa ohiko formatutik ateratzen da, ireki eta sekuentzia narratibo berri eta erakargarri bat sortzen da.

Teknikari dagokionez, moztutako paperean collageen bidez egindakoak dira ilustrazioak. Egileak erakusketa atondu du marrazki originalekin, eta Martinezen amak oihaletan erreproduzitutakoekin. Lan hauek guztiak Donostian egon ziren udan; urtarrila amaitu bitartean, Durangon daude ikusgai.



Edo! argitaletxearekin zaila zirudiena errealitate bihurtu du marrazkilariak, ilustrazioetan aritzen zenak idazle izateko aukera bizi izan du. Antzematen da liburu honen prozesuan egileak parte hartzeko aukera izan duela, emaitza zaindua eta ederra baita.

Edo! argitaletxeak ohiko moldetik urrun eskaintzen digun lan honetan

ez dugu, liburu gehienetan bezala, irakurketa zuzen bat egiten, argitaletxe ausart honek irakurketa eta irakurleak ulertzeko modu berri bat eskaintzen digu. Marrazki hauek guztiak editoreek lan honetan jarri duten gogo bizia kutsatzeko ahalmena dute, tartean haurrentzako liburuak ere beste era batekoak izan daitezkeela erreparatzeko gaitasuna. Liburu berezi eta apetatsua, Londresen edo Bartzelonan ikusten direnen tankerakoa. Poz atsegina da horrelako bat eskuratzea liburuaren fetitxista garen batzuentzat.